

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Otsoaren ehiza Suedian, 40 urte eta gero



WWW.KIDCOUTEAU.COM

JOAN DEN mendeko 60ko hamarkadaz geroztik Suedian ez da baimenik eman otsoa ehizatzeke. Baina aurtan, otsailaren 15 era bitartean, 27 otso ehizatzeke baimena eman du hango gobernuak, aldeko eta aurkako iritzia asko sorraraziz. Kontuak kontu, milaka boluntariok eman dute izena 27 otsoak ehizatzeke eta urtarrilaren 2rako 21 ehizatu direla jakin izan da, beraz ez dirudi luze iraungo duenik otsoa ehizatzeke irekialdiak.


Gobernuaren arabera, Suedian 182 eta 217 artekoa da otso kopurua, eta ondoan dagoen Norvegian, berriz, 213 eta 252 artekoa, baina hainbat talde kontserbatzailek diote bi herrialde horietan, guztira, 150 ale besterik ez dagoela. Otso gehienek odolkidetasun arazoak dituzte, bikote beretik baitatoz.

Eztabaida berria da Suedian, baina zaharra Europan. Frantzia eta Euskal Herrian artzainek otsoak azindetan sortzen dituzten sarraskiak aipatzen dituzten bezala, talde ekologistek otsoek oreka ekologikoan duten zeregina azpimarratzen dute. Suediakoa erdibidea ote?

Eguzki-sistemaren adina berriz kalkulatu beharko da

UNIBERTSOKO OBJEKTUEN ADINA kalkulatu ahal izateko zientzialariek datazio erradiometrikoa erabiltzen dute. Zientzialariek objektuan dagoen isotopo baten hasierako kantitatea eta haren desintegrazio-abiadura ezagutzen dituzte, eta horien arabera objektuaren adina kalkula dezakete.

Eguzki-sistemaren adina kalkulatzeko, meteoritoetan dauden berun-206 eta berun-207 isotopoen arteko proportzioa neurtu izan dute, baina *Science* aldizkarian berriki argitaratutako artikulu batean adierazi da orain arte egindako neurketetan hutsune bat izan daitekeela. Berun-206 eta berun-207 isotopoak uranio-238 eta uranio-235ren alabak dira, hurrenez hurren, eta orain arte segurutzat jo da uranioaren bi isotopo horien arteko proportzioa beti berdina zela meteoritoetan. Baina ez da horrela, berriki egindako zenbait neurketak erakutsi dutenez. Hala, baliteke eguzki-sistema uste zena baino zertxobait gazteagoa izatea.



TRUCOSPC.INFO

H1N1 birusa ez da hainbesterako izan

Iaz Mexikotik etorri zitzaigun txerri gripearen lehen arrasto, eta orduz geroztik alarma piztu eta farmazia-entresa batzuek negozio itzela egin dute txertoen kontura. Hona hemen Frantziako datu batzuk. <http://ttiki.com/9094> (Frantsesez)

Zigarroek, nikotinaz gain, bakterio arriskutsuak ere badituzte

Frantziako eta AEBetako zientzialari talde batek egindako ikerketa-lan batean, gaixotasun larriak eragin ditzaketen bakterioak topatu dituzte zigarroetan. <http://ttiki.com/9097> (Gaztelaniaz)

2008an, %2 handitu da atmosferara igorritako CO₂ kopurua

2008an krisian geunden mundu osoan, eta halaz ere, gizakiaren jardueragatik atmosferara igorritako karbono dioxido kopurua ez da urritu, hazi baizik. Hainbat zientzialarik egindako estimazioaren arabera, %2koa izan da hazkundea. <http://ttiki.com/9098> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16